



A20 Class terminala

Erabiltzailearen eskuliburua
A20 Clase erabiltzeko gida



- | | | | |
|---|-----------------------|----|-------------------------------------|
| 1 | Atzera | 10 | Markatzeko teklatura |
| 2 | Ezabatu | 11 | Arreta komertziala |
| 3 | Aurrera | 12 | Linea Berria / Berriro deitzeko |
| 4 | Grabatu | 13 | Berriro deitzeko / Gelditzeko tekla |
| 5 | Markatu | 14 | Memoria |
| 6 | Askatu | 15 | Mute |
| 7 | Argidun adierazgailua | 16 | Dei desbideratzeko tekla |
| 8 | Ahots-postontzia | 17 | Funtzioak |
| 9 | Itxaron-deia | 18 | Hiruko deia egiteko tekla |

Aurkibidea

1. Instalazioa	<u>5</u>
<ul style="list-style-type: none">o Aurikularraren kordoiaren konexioao Telefono-sarerako konexioao Tinbrearen bolumenaren eta melodiaren erregulazioao Erlojuan ordua jartzeao Horman instalatzea	
2. Telefonoaren oinarrizko erabilera	<u>6</u>
<ul style="list-style-type: none">o Deitzeao Berriro deitzeko / Gelditzeko teklao R teklao Mute teklao Arreta komertzialeko teklao Markaketa laburtuaren memoriak	
3. Zerbitzu osagarriak	<u>12</u>
<ul style="list-style-type: none">o Deia baldintzarik gabe desbideratzeao Deia desbideratzea, komunikatzen ari badao Deia desbideratzea, erantzuten ez baduo Norberaren linearen gaineko desbideratzea murrizteao Deia zaino Hiruko deiao Dei alternatiboao Norberaren zenbakia murriztea deitik deirao Ahots-postontzia	

Aurkibidea

4. Deia egiten duen zenbakiaren identifikazioa	<u>22</u>
5. Programazio menua	<u>24</u>
6. Gida azkarra	<u>25</u>
7. Telefonoaren oinarrizko erabilpena	<u>28</u>
8. Memoriak	<u>29</u>
9. Zerbitu Osagarriak	<u>30</u>

1. Instalazioa

Aurikularraren kordioaren konexioa

Zure Class telefonoak mutur bakoitzean entxufe telefoniko modularrak dituen mikrotelefonoaren kordoi espirala du. Konektatzeko, sar ezazu kordioaren mutur bat basearen ezker aldean dagoen sarreratik eta kordioaren beste muturra mikrotelefonoaren sarreran, batean zein bestean klik entzun arte.

Entxufetik sarrerarako posizio bat baino ez dutela konturatuko zara. Ez indarrez sartu.

Telefono-lineara konexioa.

Zure Class telefonoak mutur bakoitzean entxufe telefoniko modularrak dituen linearako kordoi bat dakar. Mutur hauetariko bat LINEA hitza jarrita duen sarreran sartu behar duzu eta beste muturra zure etxeko entxufe unibertsalean.

Mikrotelefonoaren kordioarekin gertatzen zen bezala, linea telefonikoaren entxufe modularrek posizio bat baino ez dute. Ez indarrez sartu.

Altxatu mikrotelefonoa eta markatzeko gonbidapena entzungo duzu.

Tinbrearen bolumenaren eta melodiaren erregulazioa

Zure telefonoaren atzeko aldean tinbrearen bolumenerako hautagailua daukazu. Hiru tamainako kanpaiak azaltzen dira, bolumen altua, erdikoa eta baxua adieraziz. Dei bat jasotzean, hiru aukeren artean, atseginen suertatzen zaizuna hauta dezakezu.

Zure telefonoak zure gustuaren arabera aukera dezakezun tinbrearen melodiaren hiru soinu ditu. Bisorean agertuko diren nota musikal batzuek adieraziko dizute momentu bakoitzean aukeraturiko melodia zein den. 🎵

Bi eratara hauta dezakezu:

1- Programazio Menuaren bidez, gidaliburu honen 5. atalean azaltzen den bezala.

2- Dei bat hartzean eta tinbreak soinurik ez duen bitartean, sakatu 1 eta 3 teklak. Sakatzen duzun bakoitzean tinbrearen melodia aldatzen dela egiaztatu ahal izango duzu. Aukera ezazu gustukoena duzuna. Bisorean nota gehiago edo gutxiago agertuko dira aukeratzen duzunaren arabera.

Saia zaitetz telefonoaren basean dagoen tinbreari dagokion soinuaren irteera ez oztopatzen.

Erlojuan ordua jartzea

Zure ekipoak erloju bat du bisorean uneoro ikus daitekeena eta orduan jarriko dena egiten dizuten lehen deiarekin, deia egiten dueneko Bezeroaren Identifikazio zerbitzua aktibatuta baldin baduzu.

Edonola ere, erlojua orduan jar dezakezu programazio-menuan dagoen ordua aldatzeko aukeran sarturik (Ikus ezazu gidaliburu honen 5. atala).

Bisoreak SAKATU ORDUA 00 MM erakutsiko dizu, markatzeko teklatutik (11) nahi duzun ordua 24 orduko formatuan sartu behar duzula adieraziz. Arratsaldeko ordu biak eta hogeita bost minutu badira, sakatu 1 4 2 5 digituak. Laugarren digitua sartzearekin batera, berehala agertuko zaizu bisorean PM 2:25



Edozein akatsengatik formatu horretatik kanpo dagoen digituren bat sartuz gero, bisorean - EGIN GABE - mezua agertuko zaizu.

Hormako instalazioa

Zure ekipoa mahai gainean edo horman jar daiteke.

Horman jarri nahi izanez gero, lehenengo eta behin, zure telefonoaren basean horretarako propio dauden zuloetan, distantzia berera dauden hiru torloju jarri beharko dituzu

Horretarako Erabiltzailearen eskuliburu honen amaieran neurri zuzenak dituen plantila bat aurkituko duzu. Jar ezazu plantila hori horma gainean eta marka itzazu torlojuak jarri beharreko puntu zehatzak.

Torlojuaren buruak zure telefonoaren basean sartu eta ondo jarrita geratzeko behar adina irten behar du kanporantz.

Atera ezazu mikrotelefonoaren barruan dagoen harpikoa eta jira ezazu telefonoa era egokian jarrita geratzen den arte.

Gogora ezazu basearen goiko aldean koska bat duzula, mikrotelefonoari eusteko balioko duena eseki gabe dagoenean.

2. Telefonoaren oinarrizko erabilera

Deitzea

Dei bat egiteko, altxatu mikrotelefonoa. Markatzeko gonbidapen-tonua entzutean, sakatu zuzenean (10) teklatuan, edo memorian gordeta dituzun zenbakien bidez, deitu nahi duzuneko telefono-zenbakia.

Bisorean markatzen ari zarene zenbakiak agertuko dira. Bisorean, "?" digituaren adierazlea "A" da eta "#" digituarena "C".

5 zenbakia duen teklak koska bi dauzka itsuentzako erreferentzia bezala.

Berriro deitzeko / Gelditzeko tekla.

Telefonoa hartu ostean, Berriro deitzeko / Gelditzeko (13) tekla sakatuz, markatutako azken zenbakira eginiko deia egiten du aparatuak. 32 digitu arteko luzera izan dezake. Zenbakiak digitu gehiago baditu, lehenengo 32ak baino ez ditu markatuko.

Zenbaki bat markatzen ari zarenean edo memorian grabatzen ari zaren bitartean, geldialdiren bat egin nahi izanez gero, sakatu Berriro deitzeko / Gelditzeko tekla. Geldialdi bakoitzak bi segundo irauten du eta nahi duzun beste egin ditzakezu.

Geldialdia bisorean P hizkiak adieraziko du.

R Tekla

Tekla honek (12) zure telefonoa telefonogune pribatu batera (PABX) konektatuta dagoenean deien transferentzia egiteko aukera ematen dizu eta sare telefonikoak eskaintzen dituen beste zenbait ZERBITZU OSAGARRITARA. Zerbitzu horiek eskatzeko Arreta Komertzial Zerbitzura dei dezakezu Arr. Komertziala (11) tekla sakatzuz.

R tekla sakatzen duzunean bisorean "r" agertuko zaizu.

Mute Tekla

Mute (15) tekla sakatzuz gero, deskonekta dezakezu une batez mikrofonoa mikrotelefonotik elkarrizketak dirauen bitartean.

Tekla honek argi-adierazle bat du, funtzio horren egoera ezagutu ahal izateko uneoro, eta bisorek ikonoak argia piztuta du tekla hori sakatzen den guztietan. Argia badu, esan nahi du mikrofonoa deskonektatuta dagoel~~o~~ eta, beraz, zure inguruan daudenekin kontsultak egin ditzakezu; zure solaskideak ez du ezer entzungo.

Mute (15) tekla sakatzuz gero, berriro konektatzen da mikrofonoa, argi adierazlea nahiz bisorearen ikonoa amatatzen direlarik. Mute funtzioa aktibatuta egonik esekitzen baduzu telefonoa, automatikoki desaktibatuko da.

Arreta komertzialeko tekla

Arreta komertzialeko tekla (11) sakatzuz gero, mikrotelefonoa hartu ostean, zuzenean Arreta Komertzialeko Zerbitzuarekin jarriko zaitu harremanetan. Bertan zerbitzu telefonikoari buruz izan dezakezun edozein kontsultari erantzungo diotela.

Tekla honek aurrez erabakitako zenbaki bat badu ere, erabiltzaileak alda dezake tekla bertan zenbaki bat grabatuz beste edozein memoria grabatzen den bezala. (ikus 2.6 azpiatala).

Markaketa laburtuaren memoriak

Zure telefonoak markazio laburreko 10 memoriak gain, izenen agenda bat ere badu. 32 digitura arteko grabazioak egin daitezke, geldialdiak barne, eta 16 karaktere alfabetiko sar daitezke bakoitzean.

Gordeta dagoen zenbaki telefoniko bakoitzari digitu bateko zenbaki laburtu bat ematen zaio. Jarraian azaltzen da nola grabatzen diren zenbakiak memorian eta markazio laburtua.

Memorien grabazioa:

1. Mikrofonoa esekita zein eseki gabe egon daiteke.
2. Saka ezazu Grabatu tekla (4) (Mezua bisorean: GRABATU ZENBAKIA). ZENBK. GRABATU
3. Sakatu grabatu nahi duzun zenbakiaren digituak. Okerren bat eginez gero, sakatu Ezabatu tekla (2) sarturiko azken digitua eta aurrekoak ezabatzeko behar den digitura arte. Grabazioa aurikularra hartuta duzula egiten baduzu, markatzen duzun digitu bakoitzeko tonu labur bat entzungo duzu.
4. Memoria tekla (14) sakatu. (Mezua: AUKER. MEMORIA)
5. Bukatzeko, 0tik 9ra bitarteko digitu bat sakatu, zenbakia zein posiziotan grabatu nahi duzun adierazteko. Aurikularrean baieztapen-tonu luze bat entzungo duzu. (Mezua: MEMORIA 0...9)

Zenbakia eta izena memorian grabatzea.

Arestian zenbakiak memorian grabatzeko deskribitu diren 1etik 3ra arteko pausuei jarraitu behar diezu eta ondoren:

Sakatu berriz Grabatu tekla (4). Bisorean sinboloa piztuko da.

Sartu grabatu beharreko izena markatzeko teklatura (10) erabiliz. Tekla bakoitzak 5 karaktere dauzka taula honen arabera: 

1 tekla: ! . - > 1

2 tekla: A B C 2

3 tekla: D E F 3 \$

4 tekla: G H I 4 %

5 tekla: J K L 5 &

6 tekla: M N O Ñ 6

7 tekla: P Q R S 7

8 tekla: T U V 8 ?

9 tekla: W X Y Z 9


* tekla: + °) (*

0 tekla: , ' | 0

tekla: (zuriunea) : = <

- Tekla bat sakatzen den bakoitzean, tekla horren hurrengo karakterea agertzen da.
- Tekla desberdin bat sakatzen den bakoitzean, bisorearen hurrengo zuriunean idazten da.

Tekla berean dauden karaktere bi idazteko, sakatu Aurrera tekla. ">>".

- Ezabatu tekla (2) sakaturik, sakatutako azken karakterea ezabatzen da.
- Grabatu tekla txandaka sakatuz, zenbakiaren ediziotik izenaren ediziora pasatu daiteke. Zenbakia editatzen ari denean, ez da sinboloa piztuko.
- Sakatu berriro Memoria tekla (14). 
- Sakatu Otik 9ra bitartean dagoen digitu bat, zenbakia zein posiziotan grabatu nahi duzun adierazteko. Aurikularrean baieztapen tonu luze bat entzungo duzu. Mezua: "MEMORIA 0...9"

Memorial markatzea:

- Hartu mikrotelefonoa.

Memoria tekla sakatu (Mezua: AUKER. MEMORIA).


Sakatu memoriaren posizioari dagokion digitua, markatu nahi duzun zenbakia grabatua duzun digitua, alegia. Bisorean agertuko da berehala eta aukeraturiko zenbakia markatuko da.

- Aukeraturiko memoria posizioa hutsik egonez gero, errore-tonu bat entzungo da.

Memorian grabaturiko zenbakien kontsulta:

Lehenago memoria grabatu dituzun zenbakiak kontsultatu ditzakezu, prozedura honen bidez:

- Hartu mikrotelefonoa.
- Sakatu Memoria tekla (14).

- Sakatu "<<" edo ">>" (1 eta 3), memoriaren kontsultan sartuta. nboloa pizten da eta bisorearen goiko lerroan 0...9 MEM agertzen da. Memoria horretan gordetako zenbakia eta izena azalduko dira.

- "<<, >>" (1 eta 3) teklak edo zenbakidun teklak sakatuz, memoria horietan grabaturiko zenbakiak eta izenak agertuko dira.

- Agertzen den zenbakiak 16 digitu baino gehiago badauzka, Memoria tekla (14) berriro sakatuz memoriaren grabaturiko lehen digituak azalduko dira

- Markatu tekla (5) sakatuz, une horretan pantailan dagoen zenbakia markatuko da.

- Grabatu tekla (4) sakatuz, azalduko zenbakiaren ediziora pasatuko da, eta zenbaki berri bat grabatu edota dagoena aldatu ahal izango da. Grabatu tekla berriro sakatuz, izena editatzen da.

Mikrotelefonoa esekita egonik, memoriaren grabaturiko zenbakien kontsulta

Memoria tekla sakatzean, memoriaren kontsultara pasatzen da zuzenean "<<, >>" (1 eta 3) erabiliz. Memoria bat aktibatuta dagoela hartzen bada telefonoa, honek pantailan jarraituko du, eta Markatu tekla (5) sakatu ahal izango da memoria hori markatu ahal izateko.

Edozein unetan laga dezakezu funtzio hori Askatu tekla (6) sakatuz.

(CLASS) zerbitzua erabilita, dei egiten duen abonatuaren identifikazio zerbitzuaren bidez jasotako zenbaki bat grabatzea memoriaren

Memorian, aurretik deitu diguten eta CLASS zerbitzuan erregistraturik geratu den zenbaki bat graba daiteke.

Zenbakia bistan duzularik, Grabatu tekla (4) sakatu, jarraian Memoria tekla (14) eta, bukatzeko, grabatu nahi den memoria posizioa adierazten duen zenbakia.

Memorien ezabaketa

Memoria batean grabaturiko zenbakia ezabatu nahi bada, zenbaki berririk grabatu gabe, honako prozedura honi jarraitu behar diozu:

Grabatu tekla (4) sakatu, ondoren Memoria tekla (14) eta jarraian ezabatu nahi duzun memoria posizioaren zenbakia.

3. Zerbitzu osagarriak:


Zure Class telefonoak zerbitzu osagarrien erabilera errazten duten prestazioak ditu.


Deia baldintzarik gabe desbideratu.

Deien baldintzarik gabeko desbideratzeari esker, jasotzen dituzun dei guztiak beste zenbaki batera bidali ahal dituzu. Desbiatutako deia zerbitzua aktibatua duen bezeroak ordainduko du eta deia egiten duenak bere operadoreari ordainduko dio hasierako deia.


Zerbitzua desaktibatuta dagoenean telefonoa hartzean entzuten den tonuak ez du zerikusirik tonu jarraituarekin.

Aktibatu baldintzarik gabeko desbioa

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
 - Sakatu Desbideratzeko tekla. Aurikularrean tonu labur bat entzungo duzu eta bisorean ondoko mezu hau agertuko zaizu: SAKATU DESBIO + ZBK.
 - Markatu desbideratu nahi duzun telefono-zenbakia (memoria bat ere erabil dezakezu). Bisorean markatutako zenbakia agertuko da. Aurikularrean tonu labur bat entzungo duzu pultsazio bakoitzeko.
 - Desbideratzeko tekla sakatzean bisorean mezu hau agertuko da: ZERBITZUA AKTIBATZEN. Aktibazioaren sekuentziari dagokion markazioa bukatu ondoren, bisorean argia piztuko da.
-  ➤ Eseki mikrotelefonoa.

Desbideratzeko zerbitzua aktibatua dagoen bitartean, desbideratzearen sinboloa  ikusiko da bisorean eta gainera mikrotelefonoa hartzean desbiatuta dagoen zenbakia azalduko da mezu honekin: HELBURUA DESBIOA.

Desaktibatu baldintzarik gabeko desbideratzea

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Desbideratzeko tekla sakatzean, bisorean mezu hau agertuko da: SAKATU DESBIO + ZBK.
- Askatu tekla sakatzean, bisorean mezu hau agertuko da: DESAKTIBATZEN...DESAKTIBATUTAKO ZERBITZUA
- Itxaron sinboloa  bisoretik desagertu arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Une horretatik aurrera zure telefonoan jasoko dituzu berriro deiak.

Zerbitzua aktibatzeke, desaktibatzeke eta zerbitzuaren egoera ezagutzeko modu alternatiboak

Modu horiek CLASS terminalik ez duten erabiltzaileentzat pentsatuta daude.

Aktibatu Baldintzarik Gabeko Desbideratzea

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu ondoko sekuentzia hau *21* desbideratze-zenbakia#
Adibidez: *21*656123456#
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Desaktibatu Baldintzarik Gabeko Desbideratzea

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu #21# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Galdera

- Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:
- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *#21# sekuentzia.
- Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.
- Eseki mikrotelefonoa.

Komunikatzen ari bada, deia desbideratuko da.

Komunikatzen duen deia desbideratzeak aukera ematen du linea libre ez dagoenean deiak beste zenbaki batera bidaltzeko. Deitu desbideratzeko zerbitzua aktibatua duen bezeroak ordainduko du deia, eta deia egiten duenak bere operadoreari ordainduko dio hasierako deia.

Zerbitzua desaktibatuta dagoenean telefonoa hartzean entzuten den tonuak ez du zerikusirik tonu jarraituarekin.

Aktibatu deia debideratzeko zerbitzua komunikatzen duenerako

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko gonbidapen tonua entzun arte.
- Sakatu ondoko sekuentzia hau *67* desbideratze-zenbakia#
Adibidez: *67*656123456#
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Desaktibatu deia desbideratzea komunikatzen badu

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu #67# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Galdera

Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *#67# sekuentzia.
- Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.
- Eseki mikrotelefonoa.

Ez badu erantzuten, deia desbideratuko da.

Deiaren hartzailleak erantzuten ez badu, deia desbideratzeak aukera ematen du sartzen diren deiak beste zenbaki batera desbideratzeko. Deia desbideratzeko zerbitzua aktibatua duen bezeroak ordainduko du deia, eta deia egiten duenak bere operadoreari ordainduko dio hasierako deia.

Zerbitzua desaktibatuta dagoenean telefonoa hartzean entzuten den tonuak ez du zerikusirik tonu jarraituarekin.

Aktibatu deia desbideratzeko zerbitzua, hartzailleak erantzuten ez duenerako

1. aukera: telefonoak 20 segundoz jotzen du deia desbideratu baino lehen

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu ondoko sekuentzia hau *61* desbideratze-zenbakia#
Adibidez: *61*656123456#

➤ Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.

➤ Eseki mikrotelefonoa.

2. aukera: zuk erabaki dezakezu zenbat denboraz joko duen telefonoak, desbideratu aurretik.

➤ Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.

➤ Sakatu *61*desbideratze-zenbakia*denbora_segundotan#
Adibidez: *61*656123456*10#

Kasu honetan zure telefonoak 10 segundoz joko du, deia 656123456 zenbakira deia desbideratu arte.

➤ Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.

➤ Eseki mikrotelefonoa.

Desaktibatu deia desbideratzeko zerbitzua, hartzailak erantzuten ez duenerako

➤ Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.

➤ Sakatu #61# sekuentzia.

➤ Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.

➤ Eseki mikrotelefonoa.

Galdera

Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:

➤ Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.

➤ Sakatu *#61# sekuentzia.

➤ Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.

➤ Eseki mikrotelefonoa.

Egiaztapena

Zerbitzua aktibatuta dagoela eta desbideratzen den telefono-zenbakia nahi dena dela egiaztatzeko aukera ematen du.

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko gonbidapen tonua entzun arte.
- Sakatu: *#61# zenbakia #
- Lokuzio batek adieraziko digu zerbitzua adierazitako zenbakiaren gainean aktibatua dagoen ala ez, desaktibatua dagoen, edo, aktibatua badago, adierazitako zenbakia ez dela zuzena.
- Eseki mikrotelefonoa.

Norberaren linearen gaineko desbideratzea murriztea

Zerbitzu honek aukera ematen dizu linea horretatik bertatik linea horren gainean eginiko desbideratze guztiak desaktibatzeko.

Norberaren linearen desbideratzea murrizteko aukera aktibatu

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *02# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Norberaren linearen desbideratzea murrizteko aukera desaktibatu

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu #02# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Galdera

Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *#02# sekuentzia.
- Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.
- Eseki mikrotelefonoa.

Deia zain.

Deia zain egoteak aukera ematen du linea berean bi komunikazio desberdin izateko.

Aktibatu itxaron-deia zerbitzua

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *43# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Desaktibatu itxaron-deia zerbitzua

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu #43# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Galdera

Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *#43# sekuentzia.
- Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.
- Eseki mikrotelefonoa.

Funtzionamendua

Komunikazio batek dirauen bitartean, aurikularretik komunikazio horren gainetik tonu batzuk entzunez gero, horrek esan nahi du dei berri bat jartzen ari dela.

Horretaz gain, deia egiten duen abonatuaren identifikazio zerbitzua aktibatua izanez gero, bisorean deia egiten duenaren zenbakia agertuko da.

Bigarren deia onarpena

- Momentuan duzun deia askatu gabe bigarren deira pasatu nahi baduzu, sakatu Itxaron-deia (edo R2 sekuentzia) tekla. Bisorean sinbolo hau agertuko da: Llamada
en Espera
- Sakatu Itxaron-deia tekla komunikazio batetik bestera pasatzeko.

BI deietariko bat amaitzeko

- Komunikazio bat amaitu eta beste batekin jarraitzeko, amaitu nahi den elkarrizketan zaudela, sakatu Askatu tekla edo R1 sekuentzia. Bisorean sinbolo hau agertuko da: Llamada
en Espera
- Elkarrizketa amaitzeko, nahiko duzu esekitzearekin.

Hiruko deia.

Zerbitzu honek aukera ematen du aldi berean hiru pertsonen arteko komunikazioa ezartzeko.

Hiruko deiaren ezarpena:

➤ Hasierako komunikazioan zaudela, sakatu Linea Berria (18) tekla, bisorean MARKATU ZENBAKIA mezua agertuko da eta ikonoarekin Llamada en Espera piztuko da; horrek esan nahi du hasierako komunikazioaren zain dagoela.

➤ Markatzeko tonua entzuten duzunean, markatu zenbaki berria.

➤ Komunikazio berria ezarrita dagoenean, sakatu berriro Hiruko deia tekla (18) eta hiru pertsonen arteko aldi bereko komunikazioa ezarriko da. Bisorean ikonoa piztuko da Conferencia entre Tres

➤ Komunikazio biak banatu nahi dituzun momentuan, Itxaron deia tekla (9) sakatu beharko duzu. Horrela, lehenengo deiarekin hitz egingo duzu eta bigarrena zain geratuko da. Bisorean, ikonoa itzali eta piztu egingo da.

Llamada en Espera Itxaron-Deia (9) tekla sakatuz, nahi duzun beste aldiz pasa zaitezke dei batetik bestera. Conferencia entre Tres

Bi komunikazioetako bat amaitu nahi baduzu hizketan ari zarela, sakatu Askatu tekla eta ikonoa itzali egingo da.

Llamada en Espera Elkarrizketa biak batera amaitzeko, nahikoa izango da mikrotelefonoa esekitzearekin.

Dei alternatiboa

Zerbitzu honek aukera ematen du dei bat egiteko beste pertsona batekin hitz egiten ari zaren bitartean.

Funtzionamendua

➤ Hizketan ari zarela, linea berri batean sartu nahi baduzu beste dei bat egiteko, Linea Berria sakatuz egin dezakezu hori. Beste deia zain geratuko da eta bisorean sinbolo hau piztuko da:

Llamada en Espera ➤ Deitzen ari zaren zenbakiak erantzuten ez badu, berriro ere lehen elkarrizketara itzuli ahalko zara, R/Nueva Línea sakatuz.

➤ Deitzen ari zaren zenbakiko erabiltzaileak erantzuten badu, dei batetik bestera pasatu ahal izango zara Itxaron-deia tekla sakatuz, edo bigarrenera aldatu, une horretan duzuna askatuz, Itxaron-Deia tekla sakatuz, edo hiruren arteko komunikazioko Hiruko deia sakatuz.

Norberaren zenbakia murriztea deitik deira

Zerbitzu honi esker, deitzen diegun pertsonak jasotzen dituzten deietako zenbakiak identifikatzeko zerbitzua kontratatua badute ere, gure zenbakia ezkuta diezaiekegu.


Funtzionamendua

- Hartu terminala eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Markatu nahi duzun zenbakiari, jarri aurretik 067 aurrezenbakia:
Adibidez: 067656123456

Oharra: murrizketak une horretan aktibatuta dagoen deiri baino ez dio eragingo; beraz, 067 aurrezenbakia markatu behar da gure zenbakia ezkutatu nahi dugun bakoitzean.

Ahots-postontzia.

Sartzen den dei bat ahots-postontzira desbideratuko da aurrez zehazturiko denbora-tarte batean erantzuten ez bada.

Ahots-postontzian entzun ez duzun mezu bat daukazunean, terminalak loaren bidez adieraziko dizu argidun adierazgailua (7) keinuka hasiko da bidez.

Ahots-postontzirako sarbidea

- Hartu mikrotelefonoa.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Sakatu Ahots-postontzia tekla (8) edo *666 sekuentzia.

Aktibatu Ahots-postontzia zerbitzua.

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *63# sekuentzia.

- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Desaktibatu Ahots-postontzia zerbitzua.

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu #63# sekuentzia.
- Itxaron baieztapen-tonua entzun arte.
- Eseki mikrotelefonoa.

Zerbitzuaren egoerari buruzko galdera

Zerbitzua aktibatua dagoen ala ez jakiteko, kontsulta bat egin diezaiokezu sareari:

- Hartu mikrotelefonoa eta itxaron markatzeko tonua entzun arte.
- Sakatu *#63# sekuentzia.
- Lokuzio batek zerbitzua aktibatua dagoen ala ez adieraziko dizu.
- Eseki mikrotelefonoa.

4. Deitzen duen zenbakiaren identifikazioa.

Dei bat hartzerakoan, doinuaren lehenengo eta bigarren seinalearen artean, zure telefonoak deitzen ari den telefono-zenbakiaren informazioa erakutsiko du bisorean, betiere zuk zerbitzu hori aktibatua baduzu.

Bisorean agertuko da deitu duen telefono-zenbakia, abonatuaren izena, data eta ordua, eta hori guztia zerrenda batean gordeta geratuko da ondorengo errebisio baterako. Gainera, informazio horrek zure telefonoko erlojuko ordua doitzen du. Jasotako zenbakia aurretik markazio laburtuko memoria batean grabatuta badago, deiaren bigarren doinuak beste melodia bat izango du, eta memorian grabaturik zegoen zenbakia agertuko da bisorean.

Zerrendan 48 dei gorde daitezke gehienez. Kopuru hori gaindituz gero, lehenengo deiak ezabatu egiten dira, jasotako azken deiei lekua egiteko.

Deia egiten duenak informazioa murriztu badu, bisorean ANONIMOA mezua agertuko da. Eta erabiltzeko moduan ez badago, bisorean EZ DAGO ERABILGARRI mezua agertuko da. Kasu horietan jasotako dei guztien kontadorea ez da handituko.

Bisoreko informazio hori denbora-tarte batean dago ikusgai. Denbora-tarte hori igaro ondoren, jasotako deien, errepikatutako deien eta dei berrien kopurua ematen da. Dei berriak eginiko deien azken errebisiotik aurrera jasotakoak dira, eta errepikatutakoak behin baino gehiagotan jaso direnak. Dei berririk ez badago, ez da bisorean agertuko. Sartu den dei bati erantzuten bazaio, edo jasotako zenbakira berriro deituz gero, ez da dei berrizat joko.

Jasotako deien errebisioa eta markazioa

Zure telefonoa esekita edota eseki gabe dagoela, jasotako deien zenbakiak berraztertzeko aukera duzu. Telefonoa hartu eta zuzenean markatu dezakezu deitu duen zenbakia, hala nahi izanez gero.

Bisoreari lotuta dauden << ó >> teklekin (1 eta 3), jasotako dei guztiak berrius ditzakezu, lehenengotik azkenera edo alderantziz. Bisorearen erdi aldean, jasotakoaren arabera orden-zenbakia azaltzen da. Zenbakirik altuenak jasotako azken zenbakiei dagokie.

Jasotako zenbakiak 16 zifra baino gehiago baditu, bisorean zati bitan agertuko da.

Berraztertzeko dauden bi tekletariko edozein sakatuta duzun bitartean, bisorearen eskuin aldean digiturik adierazgarrienak azaltzen dira eta entzuteke dagoen informazioa gidoi batez adierazten dute eskuinean. Tekla sakatzeari uzten zaionean, bisorean gutxien adierazten duten 15 digituak agertuko dira, aurrean gidoi bat dutela.

Berraztertutako zenbakiren bat jasotako momentuan erantzun denetako bat bada, edota gero berriz deitu denetako bat bada, orden-zenbakiaren aldamenean agertuko den zeinuaren bidez adieraziko da.



Bisorean zenbaki zehatz bat agertzen denean, automatikoki marka daiteke mikrotelefonoa hartuz - esekita badago- eta markatzeko tonua entzutean, Markatu tekla (5) sakatu.

Errepikaturiko deiak

Dei bat jasotzen bada aurretik jasotako baten zenbaki beretik eta azken hori berraztertu barik balego (Dei Berria), dei horren gaineko informazioa jasotako deien zerrendaren amaieran azalduko da. DEgindako lehen deiaren data eta ordua gordeko dira eta bisorean errepikatuta azalduko da.

Jasotako zenbakiak ezabatzea:

Aukerako ezabaketa: Jasotako zenbakiak berraztertzen diren bitartean, Ezabatu (2) tekla sakatuta, une horretan bisorean agertzen den zenbakia baino ez du ezabatuko. Dei guztiei dagozkien kontadoreak berehala deskontatuko dute.

Erabateko ezabaketa: Jasotako zenbaki guztiak ezabatu nahi badituzu, aurretik denak berrazterturik izan beharko dituzu; hartara, bisorean ez da dei BERRIEN adierazgailua agertuko eta, ondoren, esekita dagoela, Ezabatu (2) tekla sakatu.

Telefonoak bisorean # baieztatu mezua erakutsiko du, eta agindu horren baieztapena eskatuko du. Sakatu #.

sakatzean, jasotako zenbaki guztiak ezabatzen dira eta jasotako eta dei berrien kontadoreak garbi geratzen dira.

5. Programazio-menua

Zure telefono berriak Programazio Menu bat dauka zuk zeuk haren ezaugarri batzuk aukera ditzazun.

Esekita dagoela sakatu Arreta komertziala (11) tekla. Ondoren, testu hauek agertuko dira bisorean, zikloka:

- RING ALDAKETA: << edo>> (1 eta 3) teklak sakatuz, tinbrearen melodia aukeratzen da. Era berean bisorean agertzen diren nota musikalak aldatzen dira.
- SAKATU ORDUA OOMM Zenbaki-teklatuarekin uneko ordua sar daiteke 24 h-ko formatuan. Edozein akatsengatik formatu horretatik kanpo dagoen.
- CLASS AKTIB. ">>" tekla (3) sakatzen baduzu, egoera BAI eta EZ aukeren artean aldatuko da, CLASSEko mezuei jaramon egiteko.
EZ programatzen bada, telefonoa esekita dagoen bitartean, bisorean uneoro ondoko mezu hau agertuko da EZ CLASSEK EZ DU KASURIK EGINGO.

Programazioan dagoen edozein menuri dagokion tekla sakatu ondorengo 12 segundotan, menu horretatik irteten zara. Azkarrago irten nahi izanez gero, sakatu Askatu (6) tekla.

6. Erabiltzailearentzako gida azkarra

TELEFONOAREN OINARRIZKO ERABILPENA		
ZERBITZUA	EKINTZA	BISOREA
Tinbrearen bolumena erregulatu.	Aukeratu aparailuaren atzeko aldeko kommutadorean.	♪♪
Tinbrearen melodia erregulatu.	Esekita edo tinbrea jotzen ari dela. << eta >> teklak Programazio menuaren bidez.	
Erlojua orduan jartzea	Programazio menuaren bidez, sartu ordua 24 orduko formatuan.	SAKATU ORDUA OOMM
Deitzea	Hartu eta markatu.	Markaturiko digituak.
Birdeitu markaturiko azken zenbakira.	Sakatu Birdeia/Geldialdia	Markaturiko azken zenbakiaren digituak.
Sartu geldialdi bat markazioan.	Sakatu Birdeia/Geldialdia	P
Telefonoguneko deien transferentzia.	Sakatu R	r
Deskonektatu mikrofonoa une batez.	Sakatu Mute	⊗ Argi adierazgailua piztuta.
Arreta komertziala.	Sakatu Arr. Komertziala	Grabatutako zenbakiaren arabera.

MEMORIAK		
ZERBITZUA	EKINTZA	BISOREA
Grabatu zenbaki bat memorian.	<ul style="list-style-type: none"> - Esekita ala eseki gabe. - Sakatu Grabatu - Markatu grabatu beharreko zenbakia - Sakatu Memoria - Sakatu Otik 9rako digitua 	<p>ZENBK. GRABATU 1, 2, 3, 4..... AUKERATU MEMORIA MEMORIA 0...9</p>
Zenbakia eta izena memorian grabatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Esekita ala eseki gabe. - Sakatu Grabatu - Markatu grabatu beharreko zenbakia - Sakatu Grabatu tekla - Sartu izena teklatuarekin. Horretarako tekla bakoitzak 5 karakter ditu 	
Markatu zenbaki bat memorian.	<ul style="list-style-type: none"> - Hartu. - Sakatu Memoria - Sakatu zenbakia grabatuta dagoeneko Otik 9ra arteko zenbakia - Hartu. - Sakatu Memoria -Sakatu zenbakia grabatuta dagoeneko Otik 9ra arteko zenbakia 	<p>AUKERATU MEMORIA 1, 2, 3, 4.....</p>
Memorian grabaturiko zenbakien kontsulta	<ul style="list-style-type: none"> - Hartu. - Sakatu Memoria -Sakatu << edo >> 	<p>MEM 0.....9 1, 2, 3, 4, 5.....</p>
Markazioa kontsultatik.	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbakiak berraztertu(Ikus. Aurreko puntua). - Sakatu "<<,>>" edo memoriaren posizioko digitua. - Sakatu Markatu 	<p>1, 2, 3, 4, 5.....</p>

ZERBITZU OSAGARRIAK		
ZERBITZUA	EKINTZA	BISOREA
<p>CLASSen jasotako zenbaki baten grabazioa.</p> <p>Aktibatu Desbioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sakatu Grabatu - Sakatu Memoria - Sakatu memoriaren posizioko digitua. - Hartu. - Markatzeko gonbidapen tonua - Sakatu Desbioa. - Markatu desbiatzen denerako zenbakia - Sakatu Desbioa. - Eseki 	<p>SAKATU DESBIO+ZENBAKIA</p> <p>ZERB. AKTIBATZEN ZERB. AKTIBATUA</p>
<p>Desaktibatu Desbioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hartu. - Sakatu Desbioa. - Sakatu Askatu. - Eseki. 	<p>DESBIOA SAKATU DESBIO+ZENBAKIA DESAKTIBATZEN ZERB.DESAKTIBAT.</p>
<p>Hiruko Deia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioan sakatu Linea berria edo Hiruko deia. - Markatu zenbaki berria. - Bigarren komunikazioan sakatu Hiruko Deia. 	<p>Deia zain 1, 2, 3, 4, Hiruko konferentzia</p>
<p>Banatu komunikazioak Hiruko Deian.</p>	<p>Sakatu Itxaron Deia.</p>	<p>Hiruko Konferentzia desagertzen da eta Itxaron Deia agertzen da</p>
<p>Amaitu komunikazioa Hiruko Deian.</p>	<p>Sakatu Askatu.</p>	<p>Desagertuko da: Deia zain</p>

TELEFONOAREN OINARRIZKO ERABILPENA

ZERBITZUA	EKINTZA	BISOREA
Onartu Itxaron Deia.	Komunikazio bati gainjarritako tonuak. - Sakatu Itxaron Deia.	Deia zain
Amaitu bi deietariko bat.	Komunikaizoan, bukatu nahi den deiarekin, sakatu Askatu.	Desagertuko da: Deia zain
Sarearen erantzungailurako sarbidea.	- Hartu. - Markatzeko gonbidapen tonua - Sakatu Sarearen E. -Jarraitu sarearen erantzungailuaren aginduak.	✉
Deitzen duen zenbakiaren identifikazioa.	Lehenengo eta bigarren tinbreen artean.	Deitzen dueneko zenbakia. Deitzen duenari dagokion zenbakia. (Murriztuta ez badaude)
Jasotako deien berrazterketa.	Esekita Ondokoak ikusi, sakatu >> Aurrekoak ikusi, sakatu <<	Orden zenbakia + deitzen duen zenbakiaren digituak + deitzen duen zenbakiari dagokion izena.
Deitu dueneko zenbakiaren markazioa.	Bisorean nahi den zenbakia dagoela, sakatu Markatu. Bisorean ezabatu nahi den zenbakia dagoela, sakatu Ezabatu.	Deitzen duen abonatuaren zenbakia.
Zerrendako zenbaki baten ezabaketa.	-Esekita -Sakatu Ezabatu.	Deien kontadorea bat gutxiagorekin.
Zerrendako zenbaki guztien ezabaketa.	-Sakatu #	BAIEZTATU # IKURRAREKIN Guztira 0